

EUSKARAREN EGUNA



Gehigarri
berezia



“Gure inertziak eta hizkuntza-ohiturak euskarara hurbiltzea da Euskaraldiaren helburua”

GOIATZ URKIJO CASTAÑARES (Laudio, 1994) Euskaraldiko koordinatzaile nagusia da, eta buru-belarri dabil ariketa sozio-lingustiko erraldoiaren antolaketa lanetan. Euskaraldia hasi berritan tarte atera du Aiaraldea Komunikabidearekin hamabost egunez luzatuko den ekimenaren inguruan hausnartzeko.

Iragan azaroaren 18an abiatu zen Euskaraldiaren 3. edizioa, eta abenduaren 2ra arte luzatuko da. Nola sumatzen duzue giroa?

Giro ona sumatzen dugu. Egia da kostatu izan zaigula batzordeak aktibatzea, urte nekeza izan baita euskalgintzarako. Korrika eta Euskaraldia urte berean batu dira eta kostatu da martxa hartzea, baina esango nuke uda osetik hona giroa asko berotu dela, jende asko animatu da Euskaraldia ere prestatzera. Azken asteak erabakiorrak izan dira giro hori sortze aldera.

Korrikaren lekukoa harturik aurkeztu zenuen edizio berri hau, pandemiaren ostean zein egoeran dago euskalgintza?

Nik uste euskalgintzak gaur egun ezinbestekoak dituela horrelako ekimen handiak. Pandemiak min handia egin du, harremantzerako orduan eta abar, eta nabaritu egin dugu hori gure antolakuntzan.

Hasieratik, urtarrilean Korrikako antolatzaileekin egindako artikulua bateratuan, beti esan dugu aurtengo urtea hitza eta ekintzaren urtea izatea nahi genuela. Eta nik uste dut horretan ari garela. Korrikak kristoren ilusioa piztu zuen

eta irudi ikusgarriak utzi zituen udaberrian, eta espero dezagun ere Euskaraldiak irudi ikusgarriak uztea ere, milaka txapa ikustea hamabost egun hauetan kaleratu.

Ikusi dugu jendea gogotsu dagoela berriro elkartzeko, pandemia ostean gauza berriak egiteko, eta giro hori sumatzen dugu azken egun hauetan.

Duela lau urte sortu zen Euskaraldiaren hirugarren edizioa da honakoa. Nolako garapena izan du ariketak edizio eta urte guzti hauetan zehar?

Esango nuke honakoa dela Euskaraldiaren edizio erabakiorra, edo benetako Euskaraldia izango den edizioa. Lehenengoa lehenengoa izanagatik, oso emozionantea izan zen, ilusioa piztu zuen, jendeak ez zekien zertara gentozen. Lehenengoak ekarri zuen ezjakintasun horretatik jendearen motibazioa eta ariketa ezagutzeko gogo hori; 230.000 lagunek parte hartu genuen.

Bigarren pandemia bete-betean egin genuen, eta egite hutsa oso positibotzat jo genuen koordinaziotik; pandemia garaian euskararen agenda sozio-politikoan jartzeko balio izan zuelako.

Hirugarrena uste dugu benetan izango dela erabakiorra, benetako Euskaraldia. Aurrekoa baino baldintza hobeagoetan egingo dugulako eta uste dugulako ere jendarteak badakiela zer nolakoa den ariketa, ezagutzen ditu rola honetzeko...

Euskararen kale erabileraren azterketek datu kezagarriak utzi berri dituzten tesuinguru batean ospatuko da Euskaraldiaren edizio berria. Horren aurrean nolako irakurketa egiten duzue?

Guk beti esan dugu Euskaraldia ez dela euskararen aldeko kanpaina bat; hau da, ez dugu txapa bat jartzen euskararen alde gaudela esateko, baizik eta euskararen alde egotetik euskararen alde egitera goazela esateko jantzen ditugu 'ahobizi' eta 'belarriprest' txapak.

Aipatutako egoera hori iraultzera dator Euskaraldia, gure inertziak eta gure hizkuntza-ohiturak euskarara gehiago hurbiltzeko, eta euskararen kale erabilera hori noski hamabost egun hauetan handitu dadin, baina gerora ere arrastoa utzi dezan Euskaraldiak hurrengo 365 egunetan.

Badakigu Euskaraldia ez dela tresna magikoa, eta ez duela egoera egun batetik bestera aldatuko, baina badakigu lagungarria dela, aurreko bi edizioetako ikerketek ere hori erakutsi digutelako.

Aipatu duzu gizarteak hirugarren edizio honetarako barneratuak dituela ariketa sozio-lingustikoaren rola; baina bada rol bat lehenengo edizioan esistitzen ez zena, eta aurrekoan estreineko aldiz aurkeztu zena: 'ariguneak'. Zertan datza zehazki ariketara gehitutako azken aldagai hau?

Definizioz 'ariguneak' dira euskaraz lasai aritzeko guneak. Baina zergatik dira euskaraz lasai aritzeko espazioak? Bada bertan, 'ahobizi' eta 'belarriprestak' aurkituko ditugulako. Horrek esan nahi du 'arigunearen' identifikagarria ikusten dugunean, bertan gutxienez pertsona

bat egongo da euskaraz ulertzen duena. Euskaraldiaren gakoa, hain zuzen ere, hori da; Euskal Herri osoan babesgune erraldoi bat sortzea euskaraz lasai aritzeko.

Badakigu euskaldunok zer nolako estres-lingustikoa bizi dugun egunero leku berri batera iristerakoan edo pertsona ezezagun baten aurrean jartzerakoan: Euskaraz jakingo ote du? Nola zuzenduko naiz berarengana? Euskaraz egingo diot lehen hitza?

'Ariguneak', 'ahobizi' eta 'belarriprest' rola batera, alde batera uzten du estres-lingustikoa hori. Ariguneak entitateetan sortu ditugu. Entitateetat ez ditugu bakarrik enpresa handiak eta erakunde publikoak hartzen, entitateak er ebadira gure egunerokobizitzan topatzen ditugun betse espazio asko ere: guraso-elkarteak, kirol-elkarteak, ostalaritza eta merkataritza espazioak...

Azaroaren 18an hasi zen Euskaraldia, kopuruetara ekarrita nolakoa ari da izaten azken edizio hau? Zeintzuk dira ariketatik espero dituzuen emaitzak?

Une honetan ez daukagu daturik une honetan, nagusiki izen-emate sistema aldatu egin dugulako aurreko edizioekin alderatuta. Lehenengo eta bigarren edizioan parte hartu dugun 'ahobizi' eta 'belarriprestok', gure izen-ematea berretsi besterik ez dugulako egin behar izan. Abenduaren 2an egingo dugu balorazio agerrialdia eta hor hitz egingo dugu gehiago datu kuantitatiboez.

Aurtengo helburua, ordea, datu kuantitatiboetatik harago emaitza kualitatiboetara jotzea izan da. Noski behar dugula lehenengo edizioak suposatzen masibotasun hori, Euskal Herri mailako euskararen babesgune erraldoi hori eraikitzeko. Baina ez guke datu horietan zentratu nahi; badakigu milaka izango direla, giro onean joan da izen-ematea azken egunetan. Olatuak izaten dira, eta despistatuek ere badute oraindik ere parte hartzeko tarteak.

Ergain kualitatiboa da orduan aurtengo Euskaraldiaren erronka nagusia. Zer emaitza espero dituzue aspektu horretan?

Aurreko edizioetan bezala ikerketa egingo dugu. Siadecok gidatuko du ikerketa hori, eta Euskaraldiak norbanakoengan zer nolako eragina duen neurtuko duen. Ergain kualitatibo horrekin jarraituz, aurtengo edizioetan parte hartu duten guztietan eskatu diegu aurreko bi edizioetako lorpenetan pentsa dezaten; zer lortu zuten ekimenari esker? Ba agian lagunekin euskaraz gehiago hitz egitea, lantokian bilerak euskaraz egitea... Behin hori eginda aurtengo edizioan zer lorpen eskuratu nahiko luketen erabakitzea eskatu diegu, eta helburu guzti horiek bistaratzeko lana egin dugu guk. Ondoaren lorpenak ezagutzen ditugunean, egingarriago ikus ditzakegu gure erronkak ere. Ikerketak ikerketa, gauza txiki, ertain eta handiak mugitzen dira gure barnean hamabost egun hauetan, eta espero dezagun hamasiegarrene-tik aurrera ere mugitzea.





ABIAN DA EUSKARALDIAREN EDIZIO BERRIA AIARALDEAN

Ostiralean abiatu zen Euskaraldia dinamika, eta abenduaren 2ra arte luzatuko da. Eguraldi petralak eta euriak ez zituen herritarrak kikildu Aiaraldeko herri gehienetan egin dituzte ariketa hasteko ekitaldiak, ehunka lagunen parte hartzearekin.



Eguraldiak ez bazuen lagundu ere, ehunka aiaraldear batu ziren Euskaraldiaren aurten-go edizioko lehen egunean. Aretan, Laudion, Arrankudiaga-Zollon, Amurrion, Orozkon eta Urduñan egin zituzten ariketa soziolingusitiko erraldoia abiatzeko ekintzak.

Aretako Kultur Etxean, estaerako, txokolate jana eta umeentzako joalasak egin zituzten, baita Audioko Herriko Plazako arkupeetan ere. Amurrion, ordea, magia ikuskizun batekin batera jantzi zituzten herritarrek ahobizi eta belarriprest txapak. Orozkon pilota partidak antolatu zituen Olgetan elkarteak, eta jendez gainezka egon zen Zubiaur plazako frontoia.

Musika ere ez zen falta izan Euskaraldiaren lehenengo egunean. Arrankudiaga-Zollon Txalainak taldeak Hertzainak banda ezagunaren bertsio akustikoak jo zituen. Urduñako Herri Eskolako jolastokian, aldiz, Garilak 26 erromeriak alaitu zuen iluntze euritsua.

Euskaraldia bertan da

Azaroaren 18an hasi eta abenduaren 2ra arte luzatuko da Euskaraldiaren hirugarren edizioa. Eskualdean hainbat batzorde eratu dira ekin-tza desberdinak dinamizatzeko asmoz, eta euskaraz mintzatzeko espazio anitzak sortuz. Hamabost egunez hitzaldiak, mendi-irteerak, orientazio probak eta beste hamaika ekitaldi kultural izango dira Euskaraldiaren egitarauaren barruan nagusi.

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

75 urte zurekin

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIKAK

Aresketa
Akastola
www.aresketaikastola.eus

Egizu bat
EUSKARALDIArekin!
hizkuntza
ohiturak
astindu!

**hitzez
ekin!**

KUTXABANK EUSKARALDIAREKIN HITZEZ EKITEKO GARAIA

Euskaraz egunero
2022ko azaroaren 18tik, abenduaren 2ra

HEMENDIK.



EUSKARAREN EGUNA AIARALDEAN



JABI ASURMENDI

Arakaldoko alkatea

“Euskaraldiaren eta euskararen egunaren atarian jaso dugu Iru-
legiko eskuaren albiste berezia, horrek ez gaitu euskaldunago
bihurtzen, baina poz handia izan da euskaltzaleontzat, eta horrelako
ilusio injekzioak ederrak izaten dira hiztun gutxiko hizkuntza baten
hiztuna zarenean. ‘Sorioneku’ gu, abenduaren 3an eta egunero!
Gora ‘eskuara’.”



AINTZANE ITURRIBARRIA

Artziniegako euskara zinegotzia

“Txapa ematera goaz danok txapa gainean eraman arte. Baina txapa
eramateak bere ardura ere badu eta ez bakarrik euskaraldian,
baita gure egunerokotasunean ere. Euskaraldia hausnarketa egite-
ko garaia da, eta askotan lotsa alde batera uzteko garaia ere, apro-
betxatu dezagun dugun altxor hau eta atera dezagun euskara kale-
ra, Sorionekuak gara gu!”

GENTZA ALAMILLO



Aiarako alkatea

“Aiaran zerbaitez harro bagaude, gure hizkuntza propioaz da: eus-
karaz. Komunikazio tresna baliotsu eta paregabea, egunerokota-
sunean auzokideekin harremanetan jartzeko, gestioak egiteko eta,
euskal kultura bultzatzeko erabiltzen duguna. Gure herrian euska-
raz bizitzen jarraituko dugu, hori baita gure bizitzeko modua, urteko
365 egunetan!”



ENCINA CASTRESANA

Aiarako Kuadrillako presidentea

“Abenduaren 3ake euskararentzat duen esanahi sinbolikoaz haratago,
Aiaraldeko herritarren eguneroko bizimoduan euskara gero eta
erabiliagoa izan dadin, baliabideak bideratzen eta gure eskualdeko
euskalgintzarekin elkarlana jorratzen jarraituko dugu, horixe baita
guztion artean euskarari etorkizuna errazteko bidea.”



JON ESCUZA



Okondoko alkatea

“Euskara sentitu eta bizitzea gero eta sarriago gertatzen da Okondon. Pixkanaka, gure herriaren euskalduntzean aurrera goaz. Hori dela eta, aurten ahalik eta probetxu handiena atera diogu Euskaraldiaren hirugarren edizioari gure herritarrekin, gure hizkuntza propioa praktikan jarriz. Okondon ere hitzez ekiteko garaia heldu da!”



ANDER AÑIBARRO

Laudioko alkatea

“Gaur, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu berriro. Egun berezi hau herritar guztiei euskaraz bizi daitezen eskatzeko baliatu nahiko nuke. Urteko 365 egunetan eta gure bizitzako arlo guztietan erabili behar dugu euskara. Gure hizkuntza zaintzea, mimatzea eta hitz egitea gure konpromisoa da.”



TXERRA MOLINUEVO

Amurrioko alkatea

“2022ko Korrikak lekukoa Euskaraldiari pasatu dio jada. Badugu garaia gure arteko ariketa komunitario erraldoi honetan parte hartzeko aukera eta beharra; gure hizkuntzaren normalizazioa bultzatuz, gure kale, plaza eta parke guztietan euskararen erabileraz zipriztinduz. Amurrion, berriro ere, #HitzEkin #Euskaraldiari ekingo diogu!”

TXUTXI ARIZNABARRETA



Arrankudiaga-Zolloko alkatea

“Korrika udaberrian, Euskaraldia udazkenean. Milaka eta milaka korrikalari, ‘ahobizi’ eta ‘belarriprest’, baina kalean euskararik ez? Euskaldun kopuruak gora egin ahala, erabilerak behera egiten omen du. Ekimen jendetsuen ostean, gure lurralde aske bakarra galbidean ikusi gura ez badugu, ezinbestekoak dira euskaraz bizitzeko konpromisoak.”



PEDRO MARI INTXAURRAGA

Orozko alkatea

“Orozkoar guztiak gonbidatu gura doguz abenduaren 3an Arakaldon izango den Euskerearen Egun Bateratura! Erronka handi bezain inportantea dogu geure hizkuntza babesteko eta sustatzen jarraituteko, eta horren parte gara herritar guztiok. Elkarrekin aurrera egingo dogu ibilbide eder horretan, urteko 365 egunetan euskereaz berbetan!”



DAVID GUTIERREZ

Urduñako kultura, euskara, hezkuntza eta kirol zinegotzia

“Euskararen Eguna ospatzeko irrikan gaude Urduñan! Aurten, gainera, indar bereziz eta gogoz beteta Euskaraldiari esker. Askotarikoak dira hirian antolatu ditugun ekintzak: erromeria, jolasak, mendi irteera, orientazio proba, bakarrikzeta... eta Abenduaren 3an Arakaldon izango gara! Jarraituko dugu euskara urteko 365 egunetan zabaltzen!”





URDUÑAKO EUSKARAREN KALE ERABILERA DATUEK GORA EGIN DUTE

Urduñako euskararen erabilera-
ren kaleko neurketan jasotako
emaitzak aurkeztu dituzte So-
ziolinguistika Klusterreko Be-
len Urangak eta Euskaltzaleen
Topaguneko Kike Amonarrizek.
Ondorioa argia da: heldu gazteak
eta haurrak daude Urduñako
kaleetako euskara erabileraren
erdigunean.

Euskararen erabileraren kaleko neurke-ta egin den eskualdeko udalerrien artean, 2011tik 2021era igoera izan duen bakarra da Urduña, %4tik %5,5era. Euskaraz gehien hitz egiten duten adin multzoan, hots, heldu gazteen kasuan, gainera, %10,1ekoa da erabilera. Hiriko abiapuntua, baina, oso bestelakoa da; euskararen erabateko absentzia, alegia. Kike Amonarrizen ikuspegitik, kasu “berezia eta arraroa” da Urduñakoa. “Zerotik abiatuta, 1981ean euskaldunak %2ra igotzea eta gaur egun heldu gazteen multzoaren erabilera %10ekoa izatea da niretzat azpimagarriena, horren atzean baitago borondate sozial handi bat; jende askoren ahalegina, ilusioa eta lana”.

Urduñarren egungo euskara-gaitasuna %29,3 izanik, %5,8koa da erabilera isotropikoa, hau da, espero daitekeen erabilera, eta hortik oso hurbil dago Urduñako euskararen erabilera erreala, %5,5ekoa. Belen Urangaren hitzetan, garrantzitsua da behatzea kopuru horretatik zenbatek duen euskara lehen hizkuntza bezala eta zenbatek ikasi duen kanpoan. “Urduñako biztanlerian euskaldunak %30 badira, lehen hizkuntza moduan euskara dutenak nabarmen gutxiago dira, %2 edo %3 inguru. Horrek neurri batean behintzat baldintzatzen du hizkuntzen kaleko erabilera, hori barrutik ateratzen zaiguna baita”, adierazi du Urangak.

Harremanak

Adin-taldeei dagokienez, Urduñak euskaraz gehien mintzatzen direnak 25 eta 44 urteko bitarteko heldu gazteak (%10,1) eta 14 urte arteko haurrak (%6,8) dira. “Euskal Herrian batzuetan hori normala dela pentsatzen dugu, haurrak izatea euskaraz gehien egiten dutenak”, dio Amonarrizek. “Benetako lorpen sozial bat bezala” ulertzen du Euskaltzaleen Topaguneko presidenteari, aurreko belaunaldiak izandako jarrerari eta egindako ahaleginari esker sortutako joera baita.

Belen Urangak azaldu bezala, “badago arau sozial bat esaten duena guraso gazteek euskaraz egin behar dutela haurrekin eta haurrek modu batean erantzuten diote arau horri”. Fenomeno horren adierazle argia da Urduñako haurren eta helduen arteko portaera linguistikoa; izan ere, “haurrak bakarrik daudenean oso gutxitan egiten dute euskaraz, baina %12,3koa da erabilerak haurrak helduekin daudenean. Borondate bat dagoela adierazten du”.

Generoaren araberako erabilera

Euskal Herri osoan jasotzen diren genero arteko aldeak Urduñan ere nabariak dira; nagusien adin-multzoan izan ezik, emakumezkoen euskarazko erabilera gizonetzkoena baino altuagoa da. Orokorrean, %6,5ean kokatzen da emakumezko urduñarren erabilera eta %4,4an gizonetzkoa. Arrazoia ezezaguna den arren, hurrengo hipotesia aipatu du Urangak: “Hipotesi mailan, badirudi emakumeek hizkuntzarekin duten harremanak genero-rolarekin zerikusia duela, hizkuntzaren zaintzarekin lotutako gauza batzuk gertatzen direla. Oraindik ez dago emaitza garbirik, baina kasu ia guzti-guztietan gertatzen da.”

Kaleen arteko aldeak

Bi ibilbide nagusi aztertutako zituzten Urduñan Soziolinguistika Klusterreko ki-deek, Foru Plaza ingurua eta Gernika Plaza ingurua, hain zuzen. Guztira, 48 ordu eman zituzten 2021eko datu-bilketan, 2011ko 16 orduko neurketarekin alderatuta, hirukoitza. Belen Urangaren esanetan, azpimarratzekoa da Urduñako bi ibilbideen arteko alde handia, Gernika Plazako erabilerak (%7,3) Foru Plazakoa (%3) bikoizten baitu. Aipatzekoa da ere Gernika Plazako erabilera 2011tik 2021era bikoiztu egin dela, %3,5etik %7,3ra.

Euskara areagotzeko aukerak

Euskaraldiaren testuinguruan, euskara erabiltzen hasteko aukera aproposak sor daitezkeela uste du Kike Amonarrizek, ‘ahobizi’ edo ‘belarriprest’ txapa jartzeak euskaraz hitz egiteko edo euskara jasotzeko prest gaudela adierazten baitu. “Askotan gertatzen zaigu erabilerarako jauzi hori egiteko, ez dakigula oso ondo edo non eman”, dio Tolosako soziolinguistak. Horregatik, euskaraz berba egiteko aukerarik erosoena edo errazena identifikatzea izango litzateke bere gomendioa.

Urduñan euskara areagotzeko aukerak sortzeko unean, hurrengo datuari erreparatu dio Belen Urangak: haurren artean erabilera igo da, baina nerabeen kasuan, aldiz, ez da hori gertatu. Euskara erabiltzen hasteko pausua ematera ausartzen ez diren gazte horiei, bi mezu helaraziko litzieke: alde batetik, “gizartearen babesa dutela, elkarrekin gaudela” eta, bestetik, “Europar hain berezia den hizkuntza hau gure eskuetan dagoela”.



“Euskal Herrian batzuetan hori normala dela pentsatzen dugu, haurrak izatea euskaraz gehien egiten dutenak. Eta hori ez da normala, ez da horrela Europako hizkuntza gutxituen kasuan. Hori zor zaio aurreko belaunaldiak izandako jarrerari eta egindako ahaleginari. Normaltzat hartzen dugun hori benetako lorpen sozial bat bezala ulertu behar dugu.”



“Euskaraz gehien hitz egiten dutenak heldu gazteak izatea ez da soilik hemen gertatzen. Badago arau sozial bat esaten duena guraso gazteek euskaraz egin behar dutela haurrekin. Haurrek modu batean erantzuten diote arau horri. Hau oso inportantea da eta Urduñan azpimarratu beharreko datu bat. Bi adin-multzo horiek elkartzen direnean, nabarmen igotzen da euskararen erabilera.”

EUSKARAREN EZAGUTZAK, HIRU PUNTU GORA

Euskaraz komunikatzeko gaitasuna duten pertsonen kopurua %35,9tik %38,48ra igo da Aiaraldean azken bost urteetan, Eustatek berriki plazaratutako datuen arabera. Igoera orokortua izan da Euskal Autonomi Erkidego osoan. Gaur egun, eskualdeko biztanleen %58,38a da euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai.



Hiru puntu igo da Aiaraldean dagoen euskaldun kopurua 2016tik 2021ra bitartean, %35,9tik %38,48ra igarota. Ia-euskaldunen presentzia ez da ia aldatu, %20a izatetik %19,1ra igaro baita. Erdaldunen kopuruan, aldiz, beherakada egon da, euskaldunen igoe-raren parekoa ia, %44,03tik %41,61era igarota.

Biztanle kopuruetara ekarrita, hauek dira datuak: Aiaraldean bizi diren 41.375 pertsonetatik 14.868 dira euskaldunak, 8.289 ia euskaldunak eta 18.218 erdaldunak.

Horiek dira euskararen ezagutzaren azterketaren emaitzak begiratuta atera daitezkeen hiru ondorio esanguratsu. Eustatek bost urtero egiten du inkesta, eta 2021koak plazaratu berri ditu. Euskaldunen igoera joera orokortua izan da Euskal Autonomi Erkidego osoan. Euskaldunen proportzioa 2011n %37,2 izatetik %43,3 izatera igaro da EAEn denbora tarte horretan. Azken bi hamarkadetako (2001tik 2021ra) datuak aztertuta, aldiz, igoera 11 puntukoa izan dela ondorioztatu du Eustatek. Araban egon da hazkunderik handiena, 7,1 puntu igo baita euskaldunen ehunekoa 2011tik hona.

Euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak batuta, esan ditek Aiaraldeko biztanleriaren %58,38k zuela euskararen ezagutzaren bat 2021ean. EAEko batz bestekotik behera dago ehuneko hori. Hala ere, berez, Araba (%51,66) eta Bizkaiko (%57,62) ehuneko orokorrak ere daude batz bestekoaren azpitik. Gipuzkoa da batz bestekoa handitzen duen lurraldea, bertako biztanleen %74,9 euskaldunak edo ia euskaldunak baitira.

Herriz herri

Herriz herrikako datuei erreparatuta, Orozko da Aiaraldean euskaldun gehien duen udalerria. %67,6koa da bertako ehunekoa eta 6 puntuko igoera izan du azken bost urteetan. Arrankudiaga-Zollo dago bigarren postuan, %61,2rekin. Jarraian doaz Arakaldo (%57,7), Aiara (%40,89), Okondo (%38,4), Amurrio (%36,8), Artziniega (%36,4), Audio (%35,06) eta Urduña (%31,34).

Erdaldunen kopurua, aldiz, jaitsi egin da 2016tik 2021ra ia udalerri guztietan, neurri handiago edo txikiagoan. Arakaldo da salbuespen bakarra. Bertako erdaldunen kopurua bost puntutan handitu da azken bost urteetan. Hala ere, kontuan hartu behar da udalerri hori oso txikia dela, 168 biztanle baititu. Gauzak hala, edozein aldaketa txikik eragin handia izan dezakete bertako kopuruetan.

Erronka, erabileran

Hala ere, datu guztiak ez dira baikorrak.



Udazkenean argitaratu dira euskararen kale erabilera datuak baita ere, Soziolinguistika Klusterraren eskutik. Datu horien arabera, Laudion lau puntuko jaitiera egon da erabileran. 2011n %9ekoa zen eta 2021n, aldiz, %4,6koa. Orozkon, Aiaraldeko udalerri euskaldunenean, paradoxikoa dirudien arren, 34ko jaitiera jazo da, hamar urtetan, %57,2tik %23,2ra jaitzita. Erabileran dago gakoa, beraz.

Aiaraldean bizi diren 41.375 pertsonetatik 14.868 dira euskaldunak, 8.289 ia euskaldunak eta 18.218 erdaldunak

Euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak batuta, esan daiteke Aiaraldeko biztanleriaren %58,38k zuela euskararen ezagutzaren bat 2021ean

higiezin agentzia

20 urte zurekin

- Pisuak
- Txaletak
- Lokalak
- Lursailak
- Balioespenak

94 672 85 50

BEZEROARENTZAKO ARRETA

Zumalakarregi 38
01400 Audio



ARAKALDON OSPATUKO DA AIARALDEKO EUSKARAREN EGUNA

Agerraldia egin zuen iragan azaroaren 10eko arratsaldean Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Arakaldon, herri horretan ospatuko baita aurten eskualdeko Euskararen Eguna, datorren abenduaren 3an. Egun osoko egitaraua prestatu dute data horretarako, eta xehetasunak azaldu zituzten aurkezpenean.

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak gogorarazi du 2016an ekin ziotela Euskararen Eguna eskualde osoan batera ospatzeari. “Amurrion ‘aterkipean’ hasitako bidaiak Urduña, Audio, Orozko eta Luiaondo izan ditu geltoki. Aurten, berriz, Arakaldoren txanda heldu da”. Antolatzaileek nabarmendu dute Arakaldoko Udalaren laguntza “ezinbestekoa” izan dela jaia prestatzerako orduan, eta udalerrak dituen “baldintza interesgarriak” jarri dituzte mahai gainean: “Azpiegitura antza eta natur inguru erakargarria. Hori baliolan jarri eta ezagutarazteko aukera baliatuko dugu abenduaren 3an”.

Adin guztientzako egitaraua

Aurreratu dutenez, publiko guztientzako egitaraua prestatu dute abenduaren 3rako. “Kultura, musika, umorea, jolasak, dantza eta kirola” egongo dira presente, berriz ere “Euskaraktibatze” helburuarekin.

'Memealdia'

Horrez gain, “berrikuntzak” ere izango ditu ospakizunak. Jakinarazi dutenez, 'Memealdia' egingo dute Aiaraldean, Euskaraldiarekin paraleloan. “Gazte eta nerabeei zuzendutako ekimena” izango da hori, eta laster emango dute informazio zehatzagoa.

“Ume eta gaztetxoentzat”, aldiz, “Euskararen zuhaitza” dinamika egingo dute Arakaldoko plazan. Egitarau guztia aurrera ateratzeko, eskualdeko “ikastetxe, entitate eta elkarte” ugari izango ditu Kontseiluak “bidelagun eta konplize”. “Euskararen normal-kuntza dugu xede eta bide horretara batzera deitu nahi dugu komunitate osoa”.

ABENDUAK 3 ARAKALDO

09:00
Mendi martxa

10:30
Musika girotzea

11:00
Hamaiketako eta erraldoien
kalejira herrian zehar

11:30
Kultur azoka

11:30
Umeen jolasak

11:30
Bola jokoa

11:30
Pilota partidak

13:30
Ekitaldi nagusia

14:00
Bazkaria

15:30
Kalaka egurrezko jolasak

15:30
Barry Manley umoregilearen
bakarrizketa

16:30
Dantza plaza Patxi eta
konpainia taldeak girotua

18:30
Parrillada

19:00
Joxpa erromeria

20:00
DJ Azkenak Itxi Dezala